

## **BATERAEZINTASUNAK**

### **ETXEBIZITZA LIBREA ALOKATZEKO LAGUNTZAK, COVID-19 BIRUSAK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDORIOZ SORTUTAKO EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALEI AURRE EGITEKO.**

#### **Laguntza hauek bateraezinak dira honako hauekin:**

<b>1.</b>	Alokairuko babes publikoko etxebizitza bat edo erabilera-lagapeneko zuzkidura-bizitoki bat izatea.
<b>2.</b>	Alokairuko etxebizitza pribatu bat edukitzea ASAP (Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programaren edo Bizigune etxebizitza hutsen programaren bidez.
<b>3.</b>	Etxebizitzako prestazio osagarria (EPO) eta etxebizitzako prestazio ekonomikoa (epe) jasotzea, alokairu-gastuak estaltzen laguntzen duten udalen edo beste edozein administrazio edo erakunde publikoren laguntzak.
<b>4.</b>	Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua 2.a atalean aipatutako alokairu-gastuekin lotutako gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jasotzea.
<b>5.</b>	Gaztelagun programako alokairurako laguntzak jasotzea. Programa hori Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez arautu zen.
<b>6.</b>	Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 31ko Aginduak araututako alokairuak ordaintzetik salbuestea. Agindu horren bidez, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan Covid-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak arautzen dira.
<b>7.</b>	Etxebizitzaren errenta osorik edo zati batean barkatzea edo errentatzailearekin adostuta ordainketa aldi baterako eta ohiz kanpo geroratzea, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19 birusari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituena).
<b>8.</b>	Errentamendu-errenta % 50 murriztea alarma-egoerak irauten duen bitartean, eta hurrengo hilekoak, epe hori nahikoa ez bada COVID-19 birusak eragindako kalteberatasun-egoerari dagokionez. Nolanahi ere, gehieneko muga lau hilabetekoa izango da, edukitzaile handien eta etxebizitzako enpresa edo erakunde publikoen kasuan errentamendu-zorren luzamendua automatikoki aplikatzeari buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.
<b>9.</b>	Beste edozein administrazio publikok edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako emandako bestelako laguntzak., 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua baitan emandako maileguak izan ezik